EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología

Euskalmet
EUSKAL METEOROLOGIA AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE METEOROLOGÍA

ASTEAZKENEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2022ko EKAINAREN 15a. 08:30.

ASTEAZKENA (2022/06/15)

Goizean lanbroa eta lainoa sortuko dira. Hauts-gandua izan dezakegu. Zerua hodei gutxirekin edo oskarbi egongo da, behe-hodeien tarte hodeitsuekin kostaldeko zenbait lekutan. Arratsaldean hodeiak ugaritu egingo dira, goi-hodeiak eta bero-hodeiak. Norabide aldakorreko haize ahula ibiliko da. Eguerdi inguruan haizeak ipar-osagaira egingo du kostaldean, ahul-bizi ibiliko da, eta arratsaldean barnealdean egingo du ipar-mendebaldera. Arratsalde-gauean barnealdean haizea indartu egingo da. Tenperatura maximoetan aldaketarik ez kostaldean, gutxi jaitsiko dira Kantauri barnealdean, bereziki ekialdean non zenbait lekutan nahikoa jaitsiko diren, eta aldaketarik gabe edo gutxi igoko dira Mediterraneo isurialdean.

Tenperaturak (ºC)	
	Maximoa
Donostia	26
Bilbao	28
Gasteiz	34
Arrasate	32

OSTEGUNA (2022/06/16)

Goiz-lanbroa. Hauts-gandua izan dezakegu. Zerua partez hodeitua egongo da, erdi mailako hodeiekin eta goi-hodeiekin. Arratsalde-gauean bero-hodeiak garatuko dira. Arratsalde-gauean zaparrada trumoitsuak bota ditzake eta ekaitz-guneetan haize-bolada oso gogorrak izan daitezke eta txingorra bota dezake. Hego-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da, eguerdian ipar-ekialdera egingo du kostaldean eta arratsaldean barnealdean. Tenperatura minimoetan aldaketarik ez edo gutxi igoko dira. Tenperatura maximoak igo egingo dira: nahikoa kostaldean eta gutxi edo nahikoa barnealdean.

Tenperaturak (ºC)		
	Minimoa	*Maximoa*
Donostia	19	30
Bilbao	20	35
Gasteiz	16	37
Arrasate	18	37

OSTIRALA (2022/06/17)

Goiz-lanbroa. Zerua partez hodeitua egongo da, erdi mailako hodeiekin eta goi-hodeiekin; arratsalde-gauean bero-hodeiak garatuko dira. Arratsalde-gauean zaparrada trumoitsuak bota ditzake eta baliteke haize-bolada oso gogorrak eragitea, bereziki barnealdean. Kostaldean goizaldean mendebal/hego-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da, goizean hegoaldeko haize ahula ibiliko da, tarte biziekin; eguerdi inguruan haizeak ipar-ekialdera egingo du, arratsaldean tarte biziekin. Barnealdean hego/hego-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da eta arratsaldean ipar-ekialdera egingo du. Tenperaturan aldaketarik ez edo gutxi igoko da.

LARUNBATA (2022/06/18)

Goiz-lanbroa. Egunaren lehen partean zerua hodei gutxirekin edo partez hodeitua egongo da; arratsaldean hodeiak bero-hodeiak ugaritu egingo dira. Arratsalde-gauean zaparrada trumoitsuak bota ditzake eta baliteke ekaitz-guneetan haize-bolada oso gogorrak izatea. Hego-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogor batzuekin, bereziki ekialdean. Kostaldean eguerdi inguruan haizeak zakar egin dezake mendebal/ipar-mendebaldera, bolada gogorrekin. Arratsaldean haizeak ipar-mendebaldera egingo du barnealdean. Tenperatura minimoak gutxi jaitsiko dira; egunaren amaieran neurtuko dira. Tenperatura maximoetan aldaketarik ez edo gutxi jaitsiko dira.